

KALEKO ANTZERKI • ARTEEN JAIALDIA
FESTIVAL • TEATRO • ARTES • CALLE



25



ERRONKA
GARBIA

INGURUMEN ALDETIK
JASANGARRIA DEN EKITALDIA
EVENTO AMBIENTALMENTE
SOSTENIBLE

bilbokokalealdia.eu



2024

UZTARAK
1-6
UZTARAK

B

Bilbao

BABESLEAK:



LAGUNTZAILEA:



HEMENGO BAZKIDEA DA:



bilbokokalealdia.eus



UZTAILA

ASTELEHENA 1

CASILDA ITURRIZAR PARKEA

17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK

TOÑO VALDIVIESO (Euskal Herria) (arratsalde osoa)

17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

17:15 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1. GUNEA)

TEATRO GORAKADA (Euskal Herria) Bermutaren Kermessea (60 min)

18:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

18:30 PERGOLA

OSA & MUJIKA (Euskal Herria) Bueltaxka (15 min)

18:45 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (3. GUNEA)

JIMENA CAVALLETTI (Valentziako Erkidegoa) B.O.B.A.S. (Banda Orquestal Benéfica de Actos Sepulcrales) (50 min)

19:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

19:45 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)

SOON CIRCUS COMPANY (Suedia / Katalunia) Gregarios (55 min)

20:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

20:30 PERGOLA

OSA & MUJIKA (Euskal Herria) Bueltaxka (15 min)

21:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

21:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1. GUNEA)

TEATRO GORAKADA (Euskal Herria) Bermutaren Kermessea (60 min)

22:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)

PAU PALAUS CÍA. (Katalunia) ZLOTY (50 min)**

22:30 ARRIAGA PLAZA

BEWIS DE LA ROSA (Madril) RAP RURAL - Amor más que nunca (80 min)

MARTITZENA 2

CASILDA ITURRIZAR PARKEA

17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK

TOÑO VALDIVIESO (Euskal Herria) (arratsalde osoa)

17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

17:15 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1. GUNEA)

TEATRO GORAKADA (Euskal Herria) Bermutaren Kermessea (60 min)

18:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

18:15 ARTE EDERREN MUSEOAREN GUNEA

LORATZEN DANTZA TALDEA (Euskal Herria) Erroak (15 min)

18:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (3. GUNEA)

JIMENA CAVALLETTI (Valentziako Erkidegoa) B.O.B.A.S. (Banda Orquestal Benéfica de Actos Sepulcrales) (50 min)

19:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

19:30 PERGOLA

KAMIKAZ KOLEKTIBOA (Euskal Herria) Troia (60 min)

20:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

20:15 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)

SOON CIRCUS COMPANY (Suedia / Katalunia) Gregarios (55 min)

21:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

21:15 ARTE EDERREN MUSEOAREN GUNEA

LORATZEN DANTZA TALDEA (Euskal Herria) Erroak (15 min)

22:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)

PAU PALAUS CÍA. (Katalunia) ZLOTY (50 min) **

BIZKAIA ARETOA - UPV/EHU

22:30 LA GLO ZIRKO DANTZA (Euskal Herria) Site-specific: Vertical Visions (Flenbasque project) (25 min)

PLAZA BIRIBILA - AREATZA

23:00 LEKITOKO DEABRUAK & ZOZONGO PRODUKZIOAK (Euskal Herria) Mingorri (60 min)****

EGUAZTENA 3

CASILDA ITURRIZAR PARKEA

17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK

TOÑO VALDIVIESO (Euskal Herria) (arratsalde osoa)

17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1 ETA 4 GUNEAK)

TEATRO PANTA RHEI ANTZERKIA (Euskal Herria) Izarren hartza / La osa estelar (60 min)****

17:45 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)

HORTZMUGA TEATROA (Euskal Herria) Agurea, urpekaria eta itsasoa (60 min)

18:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

18:30 PERGOLA

GANSO & CÍA. (Euskal Herria) Welcome & Sorry (50 min)

19:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

19:15 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (3. GUNEA)

JOAN CATALÀ (Katalunia) Idiöfona (45 min)

20:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

20:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1 ETA 4 GUNEAK)

TEATRO PANTA RHEI ANTZERKIA (Euskal Herria) Izarren hartza / La osa estelar (60 min)****

20:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)

HORTZMUGA TEATROA (Euskal Herria) Agurea, urpekaria eta itsasoa (60 min)

21:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

21:00 PERGOLA

GANSO & CÍA. (Euskal Herria) Welcome & Sorry (50 min)

BIZKAIA ARETOA - UPV/EHU

22:00 LA GLO ZIRKO DANTZA (Euskal Herria) Perspectivas) (50 min)

ARRIAGA PLAZA

23:00 TEATRO DO MAR (Portugal) NUMB (50 min)

EGUENA 4

CASILDA ITURRIZAR PARKEA

17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK

TOÑO VALDIVIESO (Euskal Herria) (arratsalde osoa)

17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)

ALLÉGORIE (COMPAGNIE) (Frantzia) LOOKing fOr (50 min)

17:45 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)

UNDERCLOUDS CIE. (Frantzia) Inertie (30 min)

18:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

18:15 ARTE EDERREN MUSEOAREN GUNEA

LOS PUTOS MAKINAS CIE. (Frantzia) Piti Peta Hofen Show (45 min)

19:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

19:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (3. GUNEA)

JOAN CATALÀ (Katalunia) Idiöfona (45 min)

19:45 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)

ALLÉGORIE (COMPAGNIE) (Frantzia) LOOKing fOr (50 min)

20:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

20:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)

UNDERCLOUDS CIE. (Frantzia) Inertie (30 min)

21:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

21:00 ARTE EDERREN MUSEOAREN GUNEA

LOS PUTOS MAKINAS CIE. (Frantzia) Piti Peta Hofen Show (45 min)

22:00 PERGOLA

MAITE GUEVARA CÍA. (Euskal Herria) Susto (60 min)**

ARRIAGA PLAZA

23:00 TRUCA CIRCUS (Andaluzia) El Círculo (50 min)

BARIKUA 5**CASILDA ITURRIZAR PARKEA****17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK**

TOÑO VALDIVIESO (Euskal Herria) (arratsalde osoa)

17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

17:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)

HIPANA.MALETA (Alemania / Irlanda) Tunnel (35 min)

18:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

18:15 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)

ORAIN-BI ZIRKO-TEATRO (Euskal Herria) Mute (50 min)

19:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

19:15 PERGOLARANTZ PASEALEKUANACHO VILAR PRODUCCIONES & YLLANA PRODUCCIONES (Murtziako Eskualdea)
Olympics (70 min)******20:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)**

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

20:15 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)

HIPANA.MALETA (Alemania / Irlanda) Tunnel (35 min)

21:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

21:00 ARTE EDERREN MUSEOAREN GUNEA

JEAN PHILIPPE KIKOLAS (Gaztela eta Leon) Duelo (55 min)*

22:00 PERGOLA

MAITE GUEVARA CÍA. (Euskal Herria) Susto (60 min)**

PLAZA BIRIBILA - AREATZA**23:30 EUSKORLEANS BAND ETA KUKAI DANTZA (Euskal Herria) Euskorleans (60 min)********ZAPATUA 6****CASILDA ITURRIZAR PARKEA****17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK**

TOÑO VALDIVIESO (Euskal Herria) (arratsalde osoa)

17:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

17:30 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1. GUNEA)

LÖKKE | OLATZ DE ANDRÉS (Euskal Herria) Doppel-Leo (15 min)

18:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

18:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)

TRIOCHKA (LA) (Frantzia) TopDown (35 min)

18:45 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (2. GUNEA)

ROJO TELÓN (Euskal Herria) Transir (50 min)

19:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

19:30 PERGOLA

DAB DANTZA KONPAINIA (Euskal Herria) NOEUD (40 min)

20:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

20:15 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (1. GUNEA)

LÖKKE | OLATZ DE ANDRÉS (Euskal Herria) Doppel-Leo (15 min)

20:45 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (4. GUNEA)

TRIOCHKA (LA) (Frantzia) TopDown (35 min)

21:00 AHATEEN URMAELAREN INGURUAK (5. GUNEA)

ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN (Nafarroa - Euskal Herria) Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter (25 min)**

21:30 ARTE EDERREN MUSEOAREN GUNEA

JEAN PHILIPPE KIKOLAS (Gaztela eta Leon) Duelo (55 min)*

ARRIAGA PLAZA**23:00 Compañía de Circo "eia" (Katalunia) NUYE (60 min)*****

* JEAN PHILIPPE KIKOLAS: beharrezkoa sarrera erostea (3 €) www.bilbokokalealdia.eus web-orrian. Batutako dirua "Itsas Salbamendu Humanitarioa (AITA MARI)" elkarteari emango zaio.

** ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN, MAITE GUEVARA CÍA eta PAU PALAUS CÍA: gonbidapena behar duen ikuskizuna eta www.bilbokokalealdia.eus web-orrian egin daitezke erreserbak.

*** Efektu estroboskopikoa erabiltzen duen ikuskizuna.

**** Ikuskizun ibiltaria.

BILBOKO KALEALDIAN GOZATZEKO AHOLKUAK

- Kontsultatu programazioa jaialdiaren webgunean eta facebooken eta Bilbao Kulturaren sareetan. Dena eskura izango duzu, eta paper eta bestelako material gutxiago kontsumituko dugu.
- Begirunez jokatu artistekin eta haien lanekin. Ondo pasatzeko, ezinbestekoa da guztiontzat, baina are gehiago artistentzat. Gogoratu lanean ari direla guk ondo pasatzeko!
- EZ utzi bakarrik haurrak. Bizi ezazu haiekin kaleko arteen esperientzia. Eta familian 4 hankako kideren bat badago, zaindu bera ere, ez utzi aske.
- Utzi kezka guztiak albo batera (mugikorra barne).
- Jarraitu ikuskizuna zuzenean, mugikorrarekin argazkirik eta bideorik egin barik. Gure webgunean eta sareetan erreportaje onak izango dituzu gero ere.
- Erdu Bilboko Kalealdira!

IKUSKIZUNEN IRISGARRITASUNAREN INGURUKO PIKTOGRAMAK



Persona gorrak edo entzumen-arazoak dituztenentzako ikuskizun egokiak



Zeinu-hizkuntza interpretea izango duten ikuskizunak



Mugikortasun urriko pertsonentzako leku-erreserbak izango dituzten ikuskizunak

IKUSKIZUN MOTEI BURUZKO PIKTOGRAMAK



ANTZERKIA



DANTZA



DANTZA BERTIKALA



ZIRKUA



MUSIKA



TXOTXONGILOAK



KLOWNA



ANTZERKI FISIKOIA



IBILTARIA



INSTALAZIOA



PIROTEKNIA



OBJKTUEN ANTZERKIA

PUBLIKOARI BURUZKO PIKTOGRAMAK



DENONTZAT



GOMENDATUTAKO ADINA



ORDAINDU BEHARREKO IKUSKIZUNA



ERRESERBA BEHARREZKOIA



**ALLÉGORIE
(COMPAGNIE)**
"LOOKing fOr"
(Frantzia)

Testurik ez

4

UZTAILA

EGUENA
17:00 / 19:45

**CASILDA
ITURRIZAR PARKEA**
Ahaten urmelaren
inguruak (4. GUNEA)



Laburpena

Ez gara nomadak jai, baina mugimenduak gudan hartu du etxea, beharizana bailitzan. Aspaldi joan ginen, eta dagoeneko ez gara inongoak. Agian, ez gara leku bakarrean geratzekoak izango... pertsona konformagaitzak, ameslariak eta askeak gara.

Katell Le Brenn eta David Coll Povedano zirkuko artistek haiekin bat egiteko proposatu zioten Chloé Cailleton jazz abeslariari *LOOKing fOr* sortzeko. Elkarrekin zeudela, erbestealdiaz, bidaiatz, leku baten inguruko bilaketaz interesatzen hasi ziren. Hiru aukeri, darabilizate: txikia, ertaina eta handia, aurkitu nahi duten plazaren ikurrak.

Kantuak abestuz eta aukeriak maneiatuz, gorputzak espazioaz jabetzen dira, urrunago joateko elkarrizketa gisa. *LOOKing fOr* iraganean izan ginen haurren oihartzuna duen musika eta esperimendua bilatzeko bidaia da.

<https://www.compagnieallegorie.com/>



**BEWIS
DE LA ROSA**
"RAP RURAL -
Amor más
que nunca"
(Madril)

Gaztelania

1

UZTAILA

ASTELEHENA
22:30

ARRIAGA PLAZA



Laburpena

"Bewis de la Rosa" Beatriz del Monteren proiektu artistiko poliedrikoa da, zeinak RAP RURAL kontzeptuaren inguruko ikerketa baitu oinarri. Taldearen lehen lanak Amor más que nunca du izena, eta bi hausnarketa-ardatz proposatzen ditu: maitasuna eta landa-mundua. Tradizio gaztelarrari erreferentzia argiak egiten dizkion unibertso eszeniko bat ekartzen du, eta bertan, musika, dantza eta performancea uztartzen dira. G. Rams musika-ekoizlearen soinuarekin batera, raparen, hip-hoparen, musika latinoaren eta folkloreakin elementuak biltzen ditu, letra mamitsuekin. Pentsamendu kritikoa, transfeminismoa, desazkundera, zauri historikoa eta osasun mentala lantzen ditu, maitasunetik eta arteki abiatuta, gizartea eraldatzeko bitarteko gisa.

Zalantzarik gabe, "Bewis de la Rosak" proposamen artistiko bete-bete, ausart, fresko eta koherentea aurkezten du, eraldaketa alderdi guztietan egitera gonbidatuz. Eta lan horregatik da, hain zuzen, artista independente ezagunenetako bat une honetan; denon ahotan dago egiten duen aurrekaririk gabeko zuzenekoari esker.

<https://www.bewisdelarosa.es/>

ARGAZKILARIA: Filippo Menichetti



COMPAÑIA DE CIRCO "EIA"

"NUYE"
(Katalunia)

Testurik ez

6
UZTAILA

ZAPATUA
23:00

ARRIAGA PLAZA



Laburpena

Isolamendu baten ondotik, leku bakarti batean esnatu gara. Zerbait falta zaigu. Gure baitan bilatzen hasi gara, harik eta kanpoko munduarekiko talka eginda, bilatu eta harekin konektatu beharraz ohartu garen arte. Beste pertsonak bilatzea eta haiekin konektatzea. Haiek ukitu, eskua eman, besarkatu, partekatu... ahal izatea.

Nuye deritzona sei akrobatentzako zirku-proposamen koreografikoa da, bikote-harremanen dinamikei buruzko miaketatik sortu dena, pertsona beraren eta besteen artean egin ditugun joan-etorriak jasotzen dituen, gu osatzeko etengabeko bilaketan.

Ikuskizunean, oreka akrobatikoak, jauziak eta jolas ikarioak tartekatzen dira.

<https://www.compagnieallegorie.com/>



DAB DANTZA KONPAINIA

"NOEUD"
(Euskal Herria)

Testurik ez

6
UZTAILA

ZAPATUA
19:30

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
PERGOLA



Laburpena

NCEUD, frantsesez korapilatua, "DAB dantza konpainiaren" sorkuntza berria da, non Eduardo Chillidak eta Cristóbal Balenciagak amankomunean zituzten lan metodologietan sakondu duten, mugimenduaren bidez. Obraren inspirazio sozialari dagokionez, bi artista ospetsu hauek bizi izan zuten egoera politiko, sozial eta kulturalari erreparatuz, hiru dantzari jarri dituzte eszenatokian zurrunkeriatik askatasunerantz bidea aurkitu dezaten. Behaketa hauek dantzara ekarriz, iraganera begiratu dute garaikidetasuna eraikitzeko, erroetatik eta herriarentzat.

Proiektu irabazlea "KARRIKAN" Plataforma laugarren laguntza deialdiaren barruan.

<https://dab.eus/>



ESTEFANÍA DE PAZ ASÍN
 “Olvido Flores. Las maravillas de Júpiter”
 (Nafarroa - Euskal Herria)

Gaztelania

1ETIK (ASTELEHENA)
6RA (ZAPATUA)
UZTAILA

17:00 / 18:00 /
 19:00 / 20:00 / 21:00

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
 Ahaten urmaelaren inguruak (5. GUNEA)



Laburpena

1936ko uztailaren 18an, Gerra Zibila piztu zuen Errepublikaren aurkako altxamendu kolpistarekin batera, Lodosara (Nafarroa) iritsia zen “Anastasini” zirkua osatzen zuten 50 artistak desagertu ziren, arrastorik utzi gabe. Diotenez, batzuk fusilatu egin zituzten eta gainerakoak tropak entretenitzera behartu zituzten. Objektuen hizkuntza erabiliz, Olvido Flores narratzaileak edertasun mingots, poesia, zirku eta gerrako istorio bat kontatzen du, hogeitabat ikusle hartzeko egokituta dagoen karabana baten barruan. Lanak oroimenaren eta antzoki ibiltarira inork lorerik eraman ez zien ahaztutako pertsonen aldeko omenaldia izan nahi du.

<https://www.estefaniadepazasin.com/>



EUSKORLEANS BAND ETA KUKAI DANTZA
 “Euskorleans”
 (Euskal Herria)

Testurik ez

5
UZTAILA

BARIKUA
 23:00

PLAZA BIRIBILA - AREATZA



Laburpena

“Kukai Dantzak” eta “Euskorleans” musika bandak bat egin dute kale ikuskizun ibiltari alai hau osatzeko. Euskal kantu eta dantza herrikoiak jasotzeko, New Orleans giroko dixie-band batera egokitu eta kalera irten dira. Gure herriak alaitzeko prest datoz!

<https://kukai.eus/>



GANSO & CÍA
 "Welcome & Sorry"
 (Euskal Herria)



Laburpena

Oihala ireki da: "TO BE OR NOT TO BE!". Horraino, dena ondo. Antzerkia maite duten bi lagunek "Hamlet" antzeztuko dute, jatorrizkoarekiko leialtasun osoz.

Dozena bat artista eta teknikariren lana egin behar izatea, Shakespeareren hizkuntzan antzezteak, talenturik eta trebetasunik ez izatea... ez dira eragozpen izango. Edo bai? Williamek burua altxatuko balu... Agian, ez litzateke harro egongo, baina barre egingo luke.

Welcome & Sorry kaleko antzerki-ikuskitzuna da, antzerki-lanbidea erakusten duena klasiko handien parodiatik eta haien inguruko estereotipoetatik abiatuta. Keinu-komedia da, clown-ildoan.

<http://www.ganso.info/>

3

UZTAILA

EGUAZTENA
 18:30 / 21:00

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
 PERGOLA

Testurik ez



HIPPANA.MALETA
 "Tunnel"
 (Alemania / Irlanda)



Laburpena

Gizartean gora egin eta handitasun partekatuko une bat bizi nahi dute bi malabaristak (Alex Allison eta Jonas Schiffauer). Prozesuan, etsitako mundu bat aurkitu eta poesiaz beteriko gizarte baten eskaera utopikoa egingo dute. Partekatutako bide honetan, besteen aurrean ideal, beldur eta nortasun propioekin agertzeko erronkak aurkituko dituzte. *Tunnel*-ek lehiari, konspirazio-adiskidetasunari, aurrera egiteko gogoari eta erortzeko beldurrari heltzen die. Ezinezkoaren jenialtasunari buruzko malabar-ikuskitzuna bat da. 2019an sortu zuten, eta harrezkero estatuko eta nazioarteko jaialdietan biran egon da.

5

UZTAILA

BARIKUA
 17:30 / 20:15

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
 Ahaten urmaelaren
 inguruak (4. GUNEA)

Testurik ez

<https://www.hippanamaleta.com/>



HORTZMUGA TEATROA

“Agurea, urpekaria
eta itsasoa”
(Euskal Herria)

Euskara

3

UZTAILA

EGUAZTENA
17:45 / 20:30

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Ahaten urmelaren
inguruak (2. GUNEA)



Laburpena

Itsasoak bi pertsona ezezagunentzako plan bat du, nahiz eta oraindik haiek ez dakiten.

Ulises zaharrak, ulertzen ez duen zibilizazio kontsumista eta suntsitzaitetik aldentuta, urteak daramatza itsasoan isuritako hondakin guztiak biltzen, haiei bigarren bizitza bat emateko. Haren sorkuntzak, berak deitzen dien bezala, bere bakardadearen lagun dira. Baina haren denbora amaitzear dago.

Felix urpekaria, aldiz, itsasoko erronka zentzugabeenak gauzatzeagatik ezaguna da sare sozialetan, munduko denbora guztia du soberan, nahiz eta ez den mugikorraren pantailatik haratago ikusteko gai. Istorio honetan kontatzen da nola lotuko dituen itsasoak pertsonaia bi horiek, izenik gabeko leku batean, non elkarrekin deskolokatuko diren, elkarri lagunduko dioten, eta beren burua erreskatatzen ikasiko duten.

Ikaskuntza- eta tolerantzia-abentura bat da, umore handiz kontatua, familia osoarentzat, geure buruari, besteei eta ingurukoei ematen dizkiegun bigarren aukerei buruz. Kontsumismo masiboa, gehiegizko hondakinak sortzea eta horiek masiboki itsasora botatzearen ondorioak ikusarazten digun esperientzia. Adingabeek sare sozialetan duten esposizio arriskutsuari eta horren ondorioei buruzko ohartarazpena.

Azken batean, gizatiarragoak izateko istorioa.

<https://hortzmuga.com/>



JEAN PHILIPPE KIKOLAS

“Duelo”
(Gaztela eta Leon)

Testurik ez

BARIKUA 5
ZAPATUA 6
UZTAILA

21:00 (BARIKUA)
21:30 (ZAPATUA)

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
ARTE EDERREN
MUSEOAREN GUNEA



Laburpena

Duelo bidaia emozional bat da, bizitzaren galerari eta onarpenari buruz hitz egiteko giro zoragarria zabaltzen duena. Zirku garaikidearen eta antzerki fisikoaren arteko ikuskizun bat da; umore beltzez beteriko proposamena, non zirku klasikoko teknika batzuk berpizten diren: aiztoak jaurtitzea, Washington trapezioa edo pailazoaren hizkera.

Domo Karparen olanaren azpian egiten den ikuskizuna, ikusleak 360°-tan kokatuta, begiradek beste begirada batzuekin topo eginez eta energia zirkuluan kontzentratuz, bizitzeko arriskua partekatzeke unibertso poetiko horren erdian.

<https://jeanphilippeikolas.com/>



**JIMENA
CAVALLETTI CÍA.**

“B.O.B.A.S. (Banda Orquestal Benéfica de Actos Sepulcrales)”
(Valentziako Erkidegoa)

Testurik ez

**ASTELEHENA 1
MARTITZENA 2
UZTAILA**

18:45 (ASTELEHENA)
18:30 (MARTITZENA)

**CASILDA
ITURRIZAR PARKEA**
Ahaten urmaelaren
inguruak (3. GUNEA)



Laburpena

Musika-banda apal batek ehorzketa-zeremoniak antolatzen ditu, baina oraingoan apaiza eta hildakoa ez dira iritsi. Oso itxaronaldi deseroso eta tamalgarria partekatuko dute familiarekin eta lagunekin batera. Tronpeta, bonbardinoa, kutxa eta txindatarekin, B.O.B.A.S. hirukoteak egoera dramatiko bat istripuz beteriko komedia bihurtuko du. Clown klasikoko eta, aldi berean, garaikideko hirukote honek hildakoaren atzerapena baliatuko du oinarrizko kontuez barre eginarazteko.

<https://jimenacavalletti.com/>

ARGAZKILARIA: Simon Peeters



JOAN CATALÀ
“Idiöfona”
(Katalunia)

Testurik ez

**EGUAZTENA 3
EGUENA 4
UZTAILA**

19:15 (EGUAZTENA)
19:00 (EGUENA)

**CASILDA
ITURRIZAR PARKEA**
Ahaten urmaelaren
inguruak (3. GUNEA)



Laburpena

Ikusle talde batek parte hartzen eta jolasten du saioan, aire zabalean ibiliz eta instalazio plastiko eta soinuak eraikiz. Mugimenduaren eta objektuak manipulatzearen inguruko artisautza eszenikoa. Gizakiaren eta materiaren arteko elkarrizketa. Elkarlaneko lana, antzinako erritu moduko bat bihurturik.

<https://www.joancatala.pro>



KAMIKAZ KOLEKTIBOA

“Troia”
(Euskal Herria)

Euskara

2

UZTAILA

MARTITZENA
19:30

CASILDA
ITURRIZAR
PARKEA
PERGOLA



Laburpena

Herrian objektu misteriotsu bat agertu da. Arriskutsua izan daitekeelakoan, hiru superheroi hauek deitu dituzte herria salbatzeko. Beren botere guztiak erabiliko dituzte misioa aurrera eramateko, eta herritarren laguntza ezinbestekoa izango da. Herrian sortu den tentsioa handia da eta edozein momentutan eztanda egin dezake.

<https://kamikazkolektiboa.com/>



LA GLO ZIRKO ETA DANTZA

“Site-specific:
Vertical Visions
(Flenbasque project)”
(Euskal Herria)

Testurik ez

2

UZTAILA

MARTITZENA
22:30

BIZKAIA ARETOA -
UPV/EHU



Laburpena

Ikuspegi bateratua erabiliz, dantza bertikala eta zirkua uztartzen dituzten laborategi esperimentalak lantzen dira “La Glo Zirko eta Dantza” konpainiako artisten eta Flandriako “Cirkus in Beweging” eskolako artisten artean.

Ikuspegi bertikaletik, ikusmolde hori proposamenaren eragingailu nagusia delarik, “site-specific”-a egingo dute oso gune zehatz batean. Gune horretan, zirkua eta dantza bertikala ezkonduko dituzte, lengoia berritzaileak sortuz, fusio berriak esperimentatuz eta artista horien arteko loturak eta elkarguneak sortuz.

“Site-specific” hori laborategi horien emaitza izango da, elkartruke-artistikoetan partekatu diren ikuspegietan oinarrituta.

<http://laglocirco.com/>



LA GLO ZIRKO ETA DANTZA "Perspectivas" (Euskal Herria)

Testurik ez

3
UZTAILA

EGUAZTENA
22:00

BIZKAIA ARETOA -
UPV/EHU



Laburpena

Ikuskera, hau da, ikuspegi fisikoa zein emozionala, etengabe agertzen da gure bizitzetan.

Izaki bizidunok garapen fisiko eta mental konplexua eta, kasu batzuetan, luzea izaten dugunez, ulertzekoa da gure ikuspegia bizitzan zehar behin baino gehiagotan aldatuz joatea. Molde fisikoa hazi ahala, mundua hainbat garaieratan ikusiko dugu denboraren poderioz eta, horregatik, egoera berdinak ez du eragin bera izango gure bizitzako aldi desberdinetan.

Bizipenek apurka-apurka kontzeptu jakin batzuk aldarazten dizkiguten elementuak ematen dizkigute, eta horrek, ezinbestean, mudatu egiten du ingurunea ulertzeko eta inguruan gertatzen direnei erantzuteko modua.

Dantzaren gainean dugun ikuskera oso desberdina da, begirada-planoaren arabera; gure ikuspegia mugatua da, eta ezin gara ikuspegi posible guztietara iritsi.

<http://laglocirco.com/>

ARGAZKILARIA: Aingeru Bidaurreta



LEKITOKO DEABRUAK & ZOZONGO PRODUKZIOAK "Mingorri" (Euskal Herria)

Testurik ez

2
UZTAILA

MARTITZENA
23:00

PLAZA BIRIBILA -
AREATZA



Laburpena

Lekeitioko Lumentza mendian, zuhaitz arteko kobazulora hurbilduz gero, azal beltzaran eta mihi-gorridun izaki bizidun bat bizi da, Mingorri. Urte luzez, Abade maltzurak giltzapean eduki zuen preso elizan, herriko mahastiek sufritutako izurriteari aurre ez egin izanagatik. Deabruak, ordea, tratu bat du Mingorrirentzat.

Zuzeneko musika eta piroteknia uztartzen dituen Correfoc teknika jorratzen duen ikuskizuna da.

Publikoa parte aktibo da eta suaren eta musikaren berotasunean gozatzen du.

Emanaldiak era guztietako efektu piroteknikoak eskaintzen ditu bere ibilbidean zehar amaiera ikusgarri batekin.



LÖKKE | OLATZ DE ANDRÉS

"Doppel-Leo"
(Euskal Herria)

Testurik ez

6

UZTAILA

ZAPATUA
17:30 / 20:15

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Ahaten urmaelaren
inguruak (1. GUNEA)



Laburpena

Doppel-Leo kapsula koreografiko bat da, bi gorputz kamuflatu eta bakarrera biltzen dituen eskulturatik ekintzarako joan-eterri jarraituan. "Doppelgänger", deritzon proiektuaren barruko kapsula koreografiko batzuen ataletako bat da, pertsona baten bikoitzari erreferentzia egiten dion alemanezko hitza erabiliz. Doppel hitzak "bikoitza" esan nahi du, eta ganger berbak, berriz, "ibiltaria". Munduan dabilen eta gutako bakoitzaren berdinerdina edo sosia den ibiltaria. Ohizko kanpoko bikoizketak edo doppelgänger direlakoak noberaren proiektzio espiritualen moduko gertakizunak dira. Kide-tasun bidezko parekatzea, mugimendu biki batek jositakoa.

<http://lokke.eus/>



LORATZEN DANTZA TALDEA

"Erroak"
(Euskal Herria)

Testurik ez

2

UZTAILA

MARTITZENA
18:15 / 21:15

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Arte Ederren
Museoaren Gunea



Laburpena

Dantza garaikidea, zuzeneko musika eta olerkigintza uztartzen dituen ikuskizuna da *Erroak*.

Emakumeen artean sareak eraikitzeak, elkar zaintzeak, elkar indartzeak eta ahaldundutzeak duen garrantzian jartzen du begirada.

Olerkien mezuekin, zuzeneko ahotsarekin, jantzi eta burukoien forma eta koloreekin baso batean gaudela sentiaraziko digute, emakumeen eta amalurraren arteko lotura bizi araziz. Guzti honek, dantza garaikidearekin batera ikuslegoa hunkituko du.



LOS PUTOS MAKINAS CIE.

"Piti Peta
Hofen Show"
(Frantzia)

Testurik ez

4

UZTAILA

EGUENA
18:15 / 21:00

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Arte Ederren
Museoaren Gunea



Laburpena

Hiru pertsona unibertso absurdu batean bizi dira, zentzurik gabekoan, non komedia nagusi den eta malabareak ama-hizkuntza diren. *Piti Peta Hofen Show* ikuskizuna hiru molde pertsonal erabat desberdinen nahastea da, antzerki-jokoa, inprobisazioa eta objektuekiko obsesioa ezaugarri dituztenak. Ikuskizuna burura etor dakigukeen zeinahi leku eta egoerataro egokitzen da, hala nola euria, ekaitza edo erupzioan dauden sumendiak. Ikuskizuna muturreko poesian oinarritzen da. Idazketa- eta dramaturgia-molde horretan, inprobisazioaren eta emanaldiaren edukiak sormenezko kaosaren dimentsioarekin nahasten dira.

<https://www.cielpm.com/>



MAITE GUEVARA CÍA.

"Susto"

(Euskal Herria)

Gaztelania

EGUENA 4
BARIKUA 5
UZTAILA

22:00

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
PERGOLA



Laburpena

Lau komediantek beldurrezko gaztelu batean egiten dute lan. Ez da ia inor bertaraino iristen.

Kontuak ez dira aspaldi ateratzen, eta beren bizibidea arrisku bizian dago. Ikuskizunak funtzionatzea behar dute eta jendea ikaratuta egotea. Baina dena askoz errazagoa izango litzateke beraiek ez balira beldur gehien dutenak.

<https://maiteguevaraartist.com/>



**NACHO VILAR
PRODUCCIONES
& YLLANA
PRODUCCIONES**
"Olympics"
(Murtziako Eskualdea)

Testurik ez

**5
UZTAILA**

BARIKUA
19:15

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
PERGOLARANTZ
PASEALEKUA



Laburpena

Lau atletek ez dute Olinpiar Jokoetan parte hartzeko txartela lortu eta euren lehiaketa olinpikoa antolatzea erabaki dute. Kirolarien garaipen grinak eta lehiak egoera zentzugabe eta surrealisten sorta luzea ekarriko dute.

Kirol olinpikoak oinarri hartuta, kaleetara itzui dira une xelebrez betetako ikuskizun ibiltari eta interaktibo batekin.

<https://nachovilar.com/>



**ORAIN-BI
ZIRKO-TEATRO**
"Mute"
(Euskal Herria)

Testurik ez

**5
UZTAILA**

BARIKUA
18:15

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Ahaten urmaelaren
inguruak (2. GUNEA)



Laburpena

Erdarazko *mutar* aditzaren aginterazko hirugarren pertsona singularra: "pertsona, animalia edo gauza baten itxura, izaera, egoera eta abar aldatzea...". Eta egun batean, iragana gure bizitzetara bueltatu zen, eta gurea dela sentitzen dugun guztia berreskuratu genuen. Gure antzokian elkartu ginen berriz ere: dena hautsez bete zegoen, hainbat urteren ondoren, eta gure zirkuko ikuskizunak bizitza berri honetarako eraldatuta berreskuratzen genituen aldi berean, mutatzen ginelako magia sentiitu genuen!

<https://www.orainbizirkoteatro.com/>



OSA + MUJKA
"Bueltaxka"
(Euskal Herria)

Testurik ez

1
UZTAILA

ASTELEHENA
18:30 / 20:30

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
PERGOLA



Laburpena

Zenbat aldiz sentitu duzu ez duzun zerbait nahi duzula? Zenbat aldiz ibili zara bueltaka, falta zaizun "zerbait" horren bila? Asegabetasunarena betiereko giza arazoa "zera hori" eskuratzean gure bizitza osoa izango dela sinestera eramaten gaituena...

Gaur egun, bilaketa hori etengabea eta aseezina da, inoiz ez dugu sentitzen merezi duen leku batera iritsi garenik, eta hor jarraitzen dugu, bueltaka. Gauza jakin bat lortuz gero, gure bizitza betiko konponduta egongo dela uste dugu, baina, egia esan, ez da horrela gertatzen. Bizitza ez zaigulako "erabat konpontzen", beti gaudelako bidean.

Bueltaxka lanak gelditzera behartzen ditu ikusleak, bueltak emateari uztera, bilaketa bertan behera uztera. Gogoraziko digu hor kanpoan ez dagoela beste ezer, kitto, den-dena hauxe dela. Baina "honek" merezi duela.

<https://osamujika.com/>



PAU PALAUS CÍA.
"ZLOTY"
(Katalunia)

Testurik ez

ASTELEHENA 1
MARTITZENA 2
UZTAILA

22:00

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Ahaten urmaelaren
inguruak (4. GUNEA)



Laburpena

Hormak baino ez dira geratzen, horma zikinak eta zimurtuak.

Pailazoak bere baitan bizi den pertsonaren konplize egiten gaitu, porrotarekin, bakardadearekin eta nostalgiarekin xalotasunez eta lotsagabekeriak konektatzeko. Kontakizun intimo eta zoroa, askatasunaz, zoritxarraz, gordintasunaz eta noraezko zirku bizitza batekiko grinaz hitz egiten diguna.

Dena posible den espazio fisiko eta denborazkoa, clownaren arteak, keinu bidezko antzerkia eta zuzeneko musika (pianoarekin, ahotsarekin eta klarinetearekin) nahasten dituen.

Zailagoa oraindik den hori, sinestezina den horretan sinestea, lainoan barneratu eta haratago joatea...

<https://www.ciapapalaus.com/>



ROJO TELÓN

"Transir"
(Euskal Herria)

Testurik ez

6
UZTAILA

ZAPATUA
18:45

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Ahaten urmaelaren
inguruak (2. GUNEA)



Laburpena


Transir transformazioari, aldaketari, bizitzari eta heriotzari buruzko joko bat da. Zirkuan, egunerokotasunean bezala, bizitza dugu jokoan. Ez dugu heriotza baino gauza seguruagorik. Zoriontsuak, mugagabeak eta natura kontrolatzeko gai garela uste izan dugu. Gure giza izaera onartzeak, azkenean hilko garela, dena amaitzen dela eta dena ez dagoela gure esku onartzeak, agian, aukera emango digu orainean, garen honetan, pentsatzeko, zer sentiitzen dugun eta nahi dugun hausnartzeko.

Agian horrek zehaztuko digu nolakoa izango litzatekeen bizitza osoagoa biziitza. Umorezko eszenaratze arina, zirkuko airezko egitura baten lau hanken artean gertatzen dena.

Transir "Rojo Telón" konpainiaren hirugarren proiektua da, non zirkuairen hizkuntzari (aireko akrobazia eta akrobazia bertikalak) zuzeneko musika gehitzen zaion.

<https://rojotelon.com/>

ARGAZKILARIA: yourphotostory



SOON CIRCUS COMPANY

"Gregarios"
(Suedia / Katalunia)

Testurik ez

ASTELEHENA 1
MARTITZENA 2
UZTAILA

19:45 (ASTELEHENA)
20:15 (MARTITZENA)

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Ahaten urmaelaren
inguruak (2. GUNEA)



Laburpena

Gregarios ez da epikoa, ezta heroikoa ere. *Gregarios* ikuskizun zintzo, dibertigarri eta izerditsua da, kirolaren alderik gizatiarrenaz diharduena.

Akrobaziaren eta umorearen bidez, bi artistek euren arteko harremanak eta adiskidetasuna jorratzen dituzte, baina lankidetzatik gatazkara erraztazun izugarri igaroko dira. Bestea zirikatzeke norgahiagoka jolasak bilatzen dituzte etengabe, baina bidean aurkitzen dituzten desberdintasunak gorabehera, konplizitatea beti dago hor, funtsean, jolas bat baino ez baita.

Eszenan, presentzia gozoa eta sotila eta zirkuko diziplinen maila tekniko handia darabiltzate. Baskula, masta txinatarra eta akrobazia ugari, ikusle guztiertzako lan tekniko eta sotil batera ekarrita.

www.sooncircus.com

ARGAZKILARIA: João Versos Roldão



TEATRO DO MAR "NUMB" (Portugal)

Testurik ez

3
UZTAILA

EGUAZTENA
23:00

ARRIAGA PLAZA



Laburpena

Sorkuntza-lan honen abiapuntua apatia soziala da, birus baten moduan ikusita, irudiz, gaur egungo gizateria suntsitzen ari dena, emozioak sentitzeko eta adierazteko gaitasuna pixkanaka desagertzen ari den mundu honetan, gure pertzepzioa eta munduarekiko, gainerakoekiko eta gurekiko harremana arriskuan jarritz.

NUMB piezak apatiaren eta loaldi sozialaren kausei buruz hausnartzen du, eta ikuskizunak, batez ere, gertaera horren ondorioen aurrean jartzen gaitu: eguneroko errealitate garaikidearen ispilua, lorkizunak mugatu eta ekintza lausotzen duen tranpa mental moduko bat, pixkanaka-pixkanaka, besteak beste, gorputza indargabetzen diguna.

NUMB (apatiakoa) kalean antzezteko ikuskizuna eta diziplina anitzeko ikus-entzunezkoa da, eskala handiko egitura eszenikoan oinarritua, bideo-mappinga eta antzerki fisikoa eta aireko akrobaziak erabiltzen dituena (ohikoak ez diren tresnen gainean). Partaideen zerrenda diziplina askotakoa da: aktoreak, dantzariak, akrobatikak...

<https://teatrodomar.com/>



TEATRO GORAKADA "Bermutaren Kermessea" (Euskal Herria)

Testurik ez

**ASTELEHENA 1
MARTITZENA 2**
UZTAILA

17:15 / 21:00 (ASTELEHENA)
17:15 (MARTITZENA)

**CASILDA
ITURRIZAR PARKEA**
Ahaien urmaelaren
inguruak (I. GUNEA)



Laburpena

Lau musikarik (trikitixa, bonbardinoa, biolina eta perkusioa), abesten duen aktore batekin batera, ikus-entzuleak kalejira batera gonbidatuko dituzte, eta aldez aurretik argi eta ghirlanda txikiz apaindu den dantzan egiteko leku apropos batera eramango dituzte.

Ibilaldi txiki horretan, aktoreak, musikariek sakatuta, kalez kaleko berriitsu haiek, etorri handiko maisuek eta salezinaren saltzaileek girotutako egoera ia ahaztuak berregingo ditu.

Dantzalekuan, nazioarteko erreperitorio ezaguna baliatu, eta hainbat genero eta garaitako musika-moldeak (boleroak, tangoak, pasodobleak, swinga...) erabiliz, dantza egiteko erromeria antolatuko da –dantza-txapelketa, bikotea aldatu eta gainerako dantza-jokoak-. Amaitzeko, bermuta dastatu eta gero, dantza-txapelketako irabazleek urdaiazpiko bat jasoko dute.

<https://gorakada.com/>



TEATRO PANTA RHEI ANTZERKIA

"Izarren hartza"
"La osa estelar"
(Euskal Herria)

Testurik ez

3
UZTAILA

EGUAZTENA
17:00 / 20:00

**CASILDA
ITURRIZAR PARKEA**
Ahaten urmaelaren
inguruak
(1 ETA 4 GUNEA)



Laburpena

Irdin hartz-kume emea bakarrik eta abandonatuta dago bizitzako bidean. Malenkoniatik ihesi dabil bere izaera eta balioa miatuz, "munduan leku bat" bilatu nahian, zoriontsu bizitzeko aukera emango dion familia bat eta etxe bat bilatu nahian. Mehatxu batek erne jartzen ditu basoko animaliak: Otso Zuri bakartiak bere nahia inposatzen du gutxien espero den tokian. Basoaren sakoneko isiltasunean, indar natural handi bat sortzen da, eta lehen benetakoa zirudien etorkizuna biraka dabil orain, kontrolik eta zentzurik gabe. Irdin hartz-kumeak bizitzara, maitasunera eta bere barnerantz joateko hartu duen erabaki sendoak erakutsiko dio bere amets guztiak bizi diren mendiaren bihotzera iristeko bidezidorra.

<https://www.teatropantarhei.com/>



TOÑO VALDIVIESO "El Jardín de BILBOKO KALEALDIA" (Euskal Herria)

Testurik ez

**TETIK (ASTELEHENA)
6RA (ZAPATUA)
UZTAILA**

17:00

**CASILDA
ITURRIZAR PARKEA**
Ahaten urmaelaren
inguruak



Laburpena

Casilda Iturrizar parkea ezinbesteko berdegunea da Bilbon, eta, uztailean, duela urte batzuetatik hona, Bilboko Kalealdiaren xarmak arte eszenikoez gozatzeko leku zoragarri bilakatzen du, kolorez eta formaz betetako ingurune naturala.

Koloretako enborrak dituzten zuhaitzen itzalean gozatzeko eta atseden hartzeko lekua da.

Parkeko berdeguneetan, tamaina, jatorri eta askotariko materialez sortutako loreak hazten dira.

Zuhaitzen arteko fantasia loratzen den lekua da.

Urmaelean, hainbat elementu agertzen dira eta ilunabarrean argitzen.

Giro atsegineko Food Track gunea.

Burdinaz, egurrez, ehunez eta abarrez egindako piezak. Material birziklatuak, beste sasoi batean pentsatutako erabilera izateari utzi ziotenak eta, gaur egun, beste bizitza bat dutenak.



TRIOCHKA (LA)
 "TopDown"
 (Frantzia)



Laburpena

TopDown-ek rolak, hartzen ditugun lekuak eta atzean uzten ditugun lekuak zalantzan jartzen ditu, eta eremu sozialeko azpiratze- eta menderatze-harremanez hitz egiten du, lanean edo eguneroko bizitzan. Zirkuko ikuskizun honetan, pertsonaiek rol edo eginkizun konbentzional horietan gordetako sinesmenen dinamika hartuko dute eta buelta emango diete joko ikarianikoen bidez ironiaz jokatzuz, nork nor manipulatzeko duen ez jakiteraino, botere-harremanei iseka eginez, haiei buruz zer pentsatu edo zer egin inoiz esan gabe. Ez-betetze txikiak ere aldaketarako aukera ematen du. Hanka bat erakustea, esku bat luzatzea, irribarre egitea, ausart jokatzeko hamaika gonbidapen bihurtzen dira eta, apurka-apurka, hiru pertsonak dantza bertikalari lotuko zaizkio, non musika euren aldaratearen oihartzun bilakatzen den.

Testurik ez

6
 UZTAILA

ZAPATUA
 18:00 / 20:45

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
 Ahaten urmaelaren
 inguruak (4. GUNEA)



TRUCA CIRCUS
 "El círculo"
 (Andaluzia)



Laburpena

Halako batean, denborak infinitu izateari uzten dio eta atzamarren artean ihes egiten digu. Untxi zuriari jarraitzea tentazio iluna da. Bizitzako aldi bakoitzak badu bere abagunea, baina ez da erraza beti harrapatzen. Non geratu ziren olgetan ibiltzeko arratsaldeak, elkarrizketa sutsuak, betiko adiskidetasunaren promesak, non etorkizun inozo baten aurreko barre indargabea? Lehengo lagun-talde minari zirkulu deritzogu orain. Gas-egoeran egotetik likido izatera igaro zen denboraren antzera egokitu zen, gaur egungo zirrikituetatik isurita. Eta zirkuluak desagertzeko mehatxua egingo digu haren garrantziaz jabetzen ez bagara, baina gatza eta piperra emango dizkigu behar bezala zaintzen badugu. Zirkulua adiskidetasunaren ideia eta aldien arteko aldaketak begirada, buru eta bihotzaren erdian jartzen dituen zirku-ikuskizuna da. Musika, akrobazia eta mugimendua, gizarte jaria kor eta lurrunkor batek gure harremanak gainditzeko moduari buruzko sentipenak partekatzeko. Ezen, gizarte honetan, tren liluragarri inguratuta gaude, eta abiadura bizian eraman nahi gaituzte, funtsean interesatzen ez zaizkigun eta komeni ez zaizkigun lekuetara.

Testurik ez

4
 UZTAILA

EGUENA
 23:00

ARRIAGA PLAZA



UNDERCLOUDS CIE.
"Inertie"
(Frantzia)

Testurik ez

4
UZTAILA

EGUENA
17:45 / 20:30

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Ahaten urmaelaren
inguruak (2. GUNEA)



Laburpena

Inertie ikuskizunak espazio publikora garamatza huts egindako ziba bat aurkitzera, bere ibilbide zirkularrean bertan behera utzitako bolumen huts bat...

Bi orekarik martxan jarritako istorio hau grabitatearen laguntzaz idazten da: hausnarketan dagoen bikote bat, oreka bilatzen duena, esekita dagoena edo, bestela, desoreka, dinamika eta errotazioa eragiten dituen. Bide bikoitz estu, konkabo eta ganbil horretatik doaz, ustekabeko mugimenduak sortuz, non dotoreziak eta poesiak kontrolarekin eta trebetasunarekin bat egiten duten.

Instalazioaren eta performancearen, zirkuaren eta dantzaren artean, bi gorputz horiek eta euren lagun metalikoak ikusizko eta zirkuiz blaitutako keinua sortuko dute, eta nork bere hautuari begiratuko dio, ludikoari edo geometrikoari, zientifikoari edo onirikoari.

<http://underclouds-cie.com/>

FOOD TRUCKS



TIPI TAPA

Bizkaitik "Tipi Tapa" foodtrucka iritsi da: hanburgesak, saltxitxa-ogitartekoak eta askotariko pintxoak eskainiko ditu.

Baita etxeko kroketak eta patata-tortilla ere. Ez galdu aukera!

LOIUKO EVENTS BASQUE SENSATION

Zatoz eta gozatu itzazu "Loiuko Events" momentuak. Aparteko eguna, gure espezialitateak dastatzen: glutenik gabeko taloak eta txorizo, txistorra, odolkia, solomoa eta bakoi ogitartekoak eta hanburgesa beganoak.

FOOD TRUCKS

UZTAILAREN
1ETIK 6RA,
ASTELEHENETIK
ZAPATURA

17:00 - 22:00

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Ahate Urmaelaren
inguruak

GARGANTUA

UZTAILAREN
1ETIK 6RA,
ASTELEHENETIK
ZAPATURA

17:00 - 21:00

CASILDA
ITURRIZAR PARKEA
Ahate Urmaelaren
inguruak

GARGANTUA

Gargantua et Pantagruel legenda frantsesean inspiratuta, Bilboko irudi ikoniko hau 1854an hasi zen haurrak irensten eta, gaur egun ere, haren ahoa eta txirrista izuaren sinonimoa dira txikientzat.

Antonio de Echániz, "Etzaniz suhiltzailea" ezizenez, oso-osorik Bilbokoa den erraldoi horren sortzailea izan zen. Gargantua, erraldoia izateaz gain, aseezina da.

Bizitza ona eta munduko plazerrak gogora ekarri nahi zituen figura hori 1854. urtean atera zen lehen aldiz herriko kaleetara. Ordutik, milaka haur jan ditu kalera atera denean, hainbat aldaketa izan ditu eta desagertzeaz ere egon da.

Lehenengo aldiz 1854an atera ondoren, Gargantuaren irudi erraldoia osteko 20 urteetan ere atera zen, 1874an bonba batek suntsitu zuen arte. 1897ko jaietan, herriak hala eskatuta, Gargantua berriro agertu zen, eta 1934an Higinio Basterra eskultoreak beste bat sortu zuen. 1950ean azken aldiz agertu ondoren, Gargantua Deustuko biltegi batean abandonatu zuten.

1962an, jaietara itzuli zen eta, beste abandonu-aldi baten ondoren, berreraiki egin zuten, behin betiko, Bilboko Aste Nagusiarekin lotuta egoteko.

Gero eta ospe handiagoa zuenez, Gargantuaren bertsio berriak sortu ziren.